



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Jose M. Alzuri Vertiz
Javier Bereau Miquelarena
M. Izaskun Altxu Ariztegi

2018ko otsailaren 26an, 16:00ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 bilkuretako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartzen dira aktak.

2. UDAL PLAN OROKORREKO PARTAIDETZA-PLANA.

Udal plan orokorreko partaidetza-plana aztertu ondoren, aho batez onetsi da agiria. Bando bat emango da herritarren parte-hartzeari buruz informatzeko, galde-sorta bat atxikituz.

3. KATASTRO ALDAKETA.

Mahai gainean utzi da gaia.

4. ESKABIDEAK.

1. Aho batez erabakitzen da 200 euroko diru-laguntza ematea Iñigo Aritza ikastolari 2018ko *Nafarroa Oinez* antolatzeko.

2. Aho batez erabakitzen da 300 euroko diru-laguntza ematea Saharaztan Elkarteari *Oporrak Bakean 2018* proiekturako.

3. I.B.E.k baimena eskatu zuen Ameztiko bidean seinaleak eta abiadura murrizteko 2 banda jartzeko, harrapatze arriskua ekiditeko. Txostena eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari, horrelako ekintzak baimentzeko Udalak daukan eskumenari buruz eta, jartzea posible izanez gero, bandek bete beharko lituzketen baldintza teknikoei buruz. Zainketa Zerbitzuko Ustiapen Atalak emandako txostena ikusirik, aho batez erabakitzen da 20 kilometro orduko abiadura ezartzea *Zubialdeko bordaren* inguruan eta 2 seinale jartzea bertan.

4. Bi poligonoko 501 lursailaren mugatik hurbil komunalean dauden 2 haritz amerikar botatzeko baimena eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari. Mendizainak egindako txostena aztertu ondoren, aho batez erabakitzen da G.A.A.ri ematea arbolak aprobetxatzeko baimena, berak landatu baitzituen.

5. Bat poligonoko 131 lursail komunalean dauden 2 haritz amerikar botatzeko baimena eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari. Mendizainak egindako txostena aztertu ondoren, aho batez erabakitzen da J.A.A.J.ri ematea arbolak aprobetxatzeko baimena, berak landatu baitzituen.

5. MOZIOAK.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1. Aho batez onesten da Iturengo Udalaren adierazpen instituzionala “transgenikorik gabeko eremua” izendatu, glifosatoen erabilera debekatu eta gertuko eta produktu ekologikoen alde borrokatzeko.

2. Aho batez onesten da Iturengo Udalaren adierazpen instituzionala gizarte-hezkuntzaren lanbidea arautzeko lege bat sortzea sostengatzeko.

6. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Jarraian, alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza:

- 2017/44 zenbakia, 2017ko abenduaren 19koa, zeinean erabaki baitzen jarduera eta irekitze lizentzia batzuen eskualdatzea onestea: Erasun Ariztegui M. Mercedes, Apezteguia Erasun Josu sozietate irregularratik J.A.ren izenera.

- 2017/45 zenbakia, 2017ko abenduaren 20koa, zeinean erabaki baitzen obrak egiteko lizentzia eskualdatze hau onestea: 1 poligonoko 119 partzelan oilaskoak gizentzeko hegazti ustiategia handitzeko lizentzia J.A.ren izenean jartzea.

- 2017/46 zenbakia, 2017ko abenduaren 20koa, zeinean erabaki baitzen pretentsioen onarpena 17-02476 gora jotzeko errekursoan.

- 2018/01 zenbakia, 2018ko urtarrilaren 5koa, zeinean erabaki baitzen *Herriko Ostatuko* ordutegia luzatzea Errege eguneko bezperan.

- 2018/02 zenbakia, 2018ko urtarrilaren 10koa, zeinean erabaki baitzen R.U.ri ematea lizentzia 2 poligonoko 2, 511 eta 11 partzelen buelta ixteko pikete eta alanbrearekin.

- 2018/03 zenbakia, 2018ko urtarrilaren 10koa, zeinean erabaki baitzen irekitze lizentzia honen eskualdatzea onestea: *Ameztiako* 1 poligonoko 80 partzelan hegazti-ustiapena jartzeko lizentzia I.V.ren izenean jartzea.

- 2018/04 zenbakia, 2018ko urtarrilaren 10koa, zeinean erabaki baitzen jarduera lizentzia honen eskualdatzea onestea: *Ameztiako* 1 poligonoko 80 partzelan behi eta ardien ustiapena jartzeko lizentzia I.V.ren izenean jartzea.

- 2018/05 zenbakia, 2018ko urtarrilaren 11koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea P.M.ri 1 poligonoko 11 partzelan eraiki duen etxebizitza lehen aldiz erabiltzeko eta okupatzeko.

- 2018/06 zenbakia, 2018ko urtarrilaren 11koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea I.A. eta beste batzuei U.A. 4an eraiki duten bi familiako etxebizitza lehen aldiz erabiltzeko eta okupatzeko.

- 2018/07 zenbakia, 2018ko urtarrilaren 22koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea X.Z.ri 20 metro karratuko teilapea eraikitzeko *Iruñagako bordari* atxikia (4 poligonoko 29 partzela), egurra pilatzeko bertan.

- 2018/08 zenbakia, 2018ko urtarrilaren 22koa, zeinean erabaki baitzen 2018 urteko hirigintza aholkularitzako kontratua adjudikatzea Chocarro y Urmeneta, S.L.P. Arquitectos-i.

- 2018/09 zenbakia, 2018ko urtarrilaren 26koa, zeinean erabaki baitzen ostatuak ixteko ordutegia luzatzea Inauterietan 6:00ak arte.

- 2018/10 zenbakia, 2018ko otsailaren 1koa, zeinean erabaki baitzen J.C.E.ri itzultzea *Herriko Ostatuko* errentamendua hartzeko jarri zuen behin betiko fidantza.

- 2018/11 zenbakia, 2018ko otsailaren 6koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea J.A.A.ri *Betenea* etxeko sotoa txoko gisa antolatzeko (3 poligonoko 28 partzela).

- 2018/12 zenbakia, 2018ko otsailaren 16koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea L.G.ri zirku emanaldia emateko plazan.

- 2018/13 zenbakia, 2018ko otsailaren 22koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea R.U.ri oilategia eta ahuntzendako txabola eraikitzeko 2 poligonoko 511 partzelan.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

7. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Ondoren, agiri hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza: Nafarroako Gobernura bidali diren baso aprobetxamenduko baimen eskaerak —J.M. eta I.B.rena—; Nafarroako Gobernuak eman duen baso aprobetxamenduko baimena —I.B.ri—; larreak erretzeko baimena; Abeltzaintzako Zerbitzuak bidali dituen Ustiapenen Erregistroan izandako mugimenduak —J.A., M.R.A., I.V. eta J.M.A.ren altak eta bajak—; Ingurumen eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari orokorraren 651/2017 Ebazpena, mendiko lanak egiteko diru-laguntza ukatu zuena; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak.

2. Alkateak hitza hartu du eta Zaborren Batzordeko bileraren berri eman.

8. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 17:40 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.